

ARGITARATZAILERA: Euskal Editorea, SL
ZUZENDARIA: Martxelo Otamendi
ZUZENDARITZA: Xabier Lekuona
EDIZIO ARDURADUNA: Pilar Mendibil
PUBLIZITATEA: Irigarri, SL
LEGE GORDAILUA: SS-0662/03
BATZORDE PAREKIDEA: galdegite fasean

EGOITZA NAGUSIA: Martin Ugalde Kultur Parkea.
 Gudarien Etorbidea z/g. 20140 Andoain.
 Telefonoa: (0034) 943-304030 Faxa: 943-300943
Webgunea: www.berria.info
Posta elektronikoa: berria@berria.info
Publizitate: publi@irigarri.net
Harpidetza saila: 943-304345

ORDEZKARITZAK: Araba: Bizenta Mogel 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-150452.
 Erredakzio faxa: 945-148307. Posta elektronikoa: araba@berria.info.
Bizkaia: Fanderia 1, 105-106 moduluak. Posta kodea: 48901 Barakaldo. Telefonoa: 94-4180120.
 Erredakzio faxa: 94-4385100. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info. **Nafarroa:** Iratxe Monasterioa 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-366622. Erredakzio faxa: 948-273757. Publizitate: 948 366623. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info. **Ipar Euskal Herria:** Pelletier 9. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: (0033) 676 714810. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.info

» jira

Bueltan etorriko zaizu

MAIALEN LUJANBIO

Arrazoi duzu, Harkaitz. Horixe esan behar diot nire garbiketarako alferrari, niri ere sinpatiko egiten zaidala hautsa; bizi-kidetasun atsegina bat lortu dugula.

Azken batean zer da hauts matatzatxo etxekoi bat, bere osagai toxiko eta guzti, Gipuzkoako hiru enpresa kimiko arriskutsuen herria? Ohepeko malutak, arazo ukigarriak, zer dira bada? Gu, udan, Urumea errekan hodi-isuri kimikoen ur-saltotxoetan masajeak hartuz bainatzen gara. Gu, airera etengabeko isurketak egiten dituzten pozoi enpresen pare-parean bizi gara. Gu, zaborren errausketa planta jarri nahi duten zonaldekoak gara. Hondakinen hilerria; inork berean nahi ez dituenen ostaturia. Bertan, kanposantuetan bezala bakoitzak balu bere hobia, izutu egingo gintuzke gure hildako kopuruak. Naturaren ikasgaia da: sortzen duzun kaka, bueltan etorriko zaizu.

Zer dira bada hauts korapilotxo sinpatiko batzuk, emisio ikusezin, zarata subliminal eta arnasa kimikoen herria? Aineza, hautsa bezala, benenoaren triangelua aspiradorarekin bil! Urumea etertzetik bildu, Adarrepean uzteko.

» bira

Salbuespen egoera

HARKAITZ CANO


Batetik eta bestetik, dezententzuten ari naiz egun hauetan salbuespen egoeraren kontu hori. Eta nago, bateraezinak ore diren bi hitz horiek. Salbuespenak zer bait ezohikoa eta puntuala behar luke, eta egoera, berriz, denboran gehiago luza daitekeen zer bait. Salbuespen errenkada batek, honenbestez, deuseztu egiten du halabeharrez salbuespena, ezohikoa dena egoera estandar bihurtzen duenez.

Eta gurean horixe gertatzen da behar-bada, salbuespena luzatzearen luzatzeaz salbuespen izateari utzi eta egoera bilakatu dela, eta egoera, berriz, salbuespen —lasai demonio hamaka batean egoteko eskubidea ez dakit inongo giza eskubideen deklarazio unibertsalen zerrendatan dagoen, baina nik behintzat aldarrikatu nahi dut—.

Herri honetan, tamalez, ez baita salbuespena zenbait jenderentzat bizkarzainen pisua sordaldan dutela ibili beharra —itzal bakarra nahikoa astun ez balitz bezala—, bere legeari berari sistematikoki trufa egiten dion estatua- ren jokabide totalitariora salbuespen ez den bezala.

Egoera nazkantea da, salbuespenak salbuespen.

» martintxo



» hitzordua

‘Proyecto secesionista’-ri buruz

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, 'TXILLARDEGI'
 IDAZLEA

Estatutuaren eta Espainiar Konstituzioaren sakralizazioa jasan dugu azkeneko urte luzetan. Horiek zalantzan jartzea, areago kritikatzeara, anatema izan da luzaz.

Orain, Ibarretxeren Planaren ondorioz, pikutara joan da idoloa. Estatutua eta Amejoramientoa labor gelditu direla aitortzen dute autonomistek berek. Eureka!

Taktika ore da bakarrik Alderdi jeltzaleak aurpegia aldatu beharrera eraman duena? «Geroak erranen». Baina alderdi positiboak dituela ezin uka.

Ur geldian zetzan euskal politika aspaldi honetan. Eta ur geldi horri kiratsa zerion, gero eta kiratsago.

Ongi etorria izan bedi, beraz, Ibarretxeren Plana.

Españolisten eta fatxa guztien amorratioak ere, gauza bera erakusten du: Madrilén astinduta daudela. Eta, ondorioz, beren nazionalismo inperialista disimulatuz ezinean ari direla. Badakizu: «*España tiene voluntad de Imperio*», «*La Hispanidad*», eta abar, eta abar.

Sutan daude. Eta hau oso adierazgarria da.

Perejil-go balentria irrigarria aipatu dute batzuek... Ongi jaiok gaude Madrilén eta Parisen 'onginahia'-ren zain baldin bargaude...

Benetan sinesten du Ibarretxek Madrilek goxo-goxoan milimetro bakar batez amore emango duenik? Benetan sinesten du Ibarretxek Madrilek euskaldunon nahia errespetatuko duenik?

Nik ez, behintzat. Eta geure burua borroka luzerako prestatu beharko dugula.

Borroka zibila, bai. Baina luze eta garrratza.

Hala ere, orain dugu memento egoikia Ibarretxeren Planaren mugak ezagutzeko.

Politikoak, ekonomikoak, juridikoak, etab., bestek ikertu eta azaldu dituzte.

Nik neure alorrekoak aztertuko ditut hemen, laburki bederen: euskararenak eta alderdi soziolinguistikoak.

Hizkuntz eskubideei dagokienaz, makina bat aldiz esana dugu lurraldetasunetik at, euskarak ez duela irtenbiderik.

Hots, Ibarretxeren Plana, alde horretatik, maingua da erabat.

Laval Unibertsitateko quebecar irakasle famatua den Jean Laponek orain dela 19 urte argitaratu zuen *Langue et Territoire* liburu famatua; baita beste lan asko ere, ingelesez eta frantsesez.

Hori dela eta, *Bat* aldizkarian (2. zenb., 1990-X; 23-47 orrialdeetan) pertsona-tasuna eta lurraldetasuna aztertutik gertatu (gero Finlandia-Suomi, Belgika eta beste, ondoko zenbakietan azalduz).

Makina bat aldiz esana dugu lurraldetasunetik at euskarak ez duela irtenbiderik.

Ibarretxeren Plana, alde horretatik, maingua da

Ahal duen irakurleak *Bar* horretara joatea dauka.

Hemen Laponek iritzi nagusia gogoraziko dugu laburki.

Honela dio Laponek:

«Estatu eleaniztunaren arazoei lurralde-irtenbide bat emateak, estatubarruko mugak ezartzea dakar. Eta irtenbide pertsonala Estatuaren lurralde osora zabaltzen diren eskubideetan oinarritzen da.

Irtenbide horietako zein, lehena ala bigarrena, den funtzionala ezin esan liteke hautatu duen talde politikoaren helburua ezagutu gabe.

Helburu hori, talde linguistiko dominatzaileen minoria asimilatzea baldin bada; ala alderantziz, multilinguismo etnikoa babestea baldin bada ere, bai epe luze eta bai laburrera, beharrezkoa izango da politika desberdina jarraitzea.

Eta hauxe izan da Suomen, Belgikan, Suitzan, kontuan hartu den oinarri soziolinguistikoak.

Hots, Ibarretxeren Planean, hizkuntzari dagokienaz, eta «legetasunean» mugitu nahi izateak, eskubide pertsonalen eremuan mugitzea dakar. Alegia, «hizkuntza dominatzaileak minoriak asimilatzea» bermatzea.

Alde batetik, Baskongadetako euskaldunok «españolak» garenak, «*tenemos el deber de conocer LA lengua nacional y el derecho a usarla*».

Baina, batera, «vascogadoak» garelako, «*tenemos el derecho a conocer el euskera y el derecho a usarlo*».

Hots, desoreka horretan, euskarak ez du irtenbiderik.

Eta argi eta garbi esan behar da.